
NOTA DE PRENSA

EL ALCALDE JUAN MARI ABURTO INAUGURA LA EXPOSICIÓN BILBAOARTE FORMADA POR LAS OBRAS DE LAS Y LOS ARTISTAS RESIDENTES EN ESTE ÚLTIMO AÑO

- **El centro de producción artística del Ayuntamiento de Bilbao despide el 2021 con esta muestra colectiva de celebración anual que reúne la obra de 26 artistas y un colectivo artístico.**
- **Un jurado de profesionales del ámbito de las artes plásticas elegirá las siete propuestas merecedoras de una exposición en solitario en 2022.**

(Bilbao, a 9 de diciembre de 2021).- El Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**, ha visitado la **exposición anual de la Fundación BilbaoArte que reúne la obra de las y los artistas becados durante este año**, que estará abierta a la ciudadanía desde el próximo lunes 13 hasta el día 17.

En este acto de inauguración, Juan Mari Aburto ha podido conocer el proceso de trabajo de cada obra de mano de sus autores, a quienes ha dado su enhorabuena y ha trasladado el compromiso del Ayuntamiento de mantener y fortalecer el modelo que implica ese centro de producción que es BilbaoArte. *“Es el referente y modelo de lo que debe ser un espacio de creación artística: abierto, plural, horizontal y en permanente crecimiento. Un espacio de referencia y de encuentro singular. No hay en todo el territorio estatal un centro de producción con la alta prestación de servicios que ofrece BilbaoArte”*, ha señalado el Alcalde.

Las salas del centro de producción municipal de arte albergarán este año **27 propuestas de artistas contemporáneos de diversas edades y procedencias tanto locales y estatales como internacionales** (México, Colombia o Brasil). A lo largo de estos trabajos se podrá observar una **muestra representativa de las últimas tendencias, modos y procesos de trabajo del arte contemporáneo**. *“La calidad de la propuesta se manifiesta a través de las diferentes prácticas artísticas, en las que los medios técnicos de la Fundación y sus profesionales resultan determinantes para la concreción de esta ambiciosa exposición”*, han explicado desde BilbaoArte.

ENCUENTROS CON LAS Y LOS ARTISTAS

Los 26 artistas y el colectivo artístico que participan en esta muestra colectiva son Urtzi Canto, Liben Svaart, Cristina Zafra, Malu Hatoum, Miquel Ponce, Julia Martos, Mikel Escobales, Roberto Coromina, Begoña Zubero, Miguel Alejos, Fernando Cremades,

Amaya Suberviola, Rocío Agudo, Gari Arambarri, Carlos Ramírez-Pantanello, Miguel Ángel Madrigal, Natalia Suárez Ortiz De Zárate, Bernarda Beñat Garmendia y Maialen Gallastegi, Jon Ander Terroba, Ibon Landa, Helí García, Gin Ro, Sara Padilla, Leire Lacunza, Santiago Ortiz, Guillermo Velasco y Elvira Amor.

Además de la exposición, los días **14 y 15 de diciembre** estarán enteramente dedicados a conocer a las y los artistas y sus proyectos con la presentación en profundidad de cada propuesta. Estos encuentros estarán coordinados por el crítico de arte **Fernando Castro Flórez** y se darán de mañana y tarde en horario de 12:00 a 14:00 horas y de 17:00 a 19:00 horas. El martes 14, además, tendrá lugar una **conferencia** de la mano de Fernando Castro.

El **viernes 17**, último día de las jornadas, un jurado compuesto por Ana Laura Aláez (artista), Mafalda Rodríguez (Museo Reina Sofía) y Nekane Aramburu (historiadora de arte, gestora cultural, museóloga y curadora) recorrerá los espacios y elegirá las **siete propuestas elegidas para realizar exposiciones individuales durante el año 2022**. Su decisión se anunciará públicamente esa misma tarde en el centro ante los artistas.

APOYO AL SECTOR

Durante este ejercicio, se han puesto en marcha iniciativas para seguir con el apoyo al sector. A través de Bilbao Arte, el Ayuntamiento lanzó la convocatoria **BAGI! Bilbao Arte Gela Irekia**, que cerró un total de **10 programas de actividades muy completos**.

Durante los últimos seis meses, BilbaoArte ha sido eje de programas sobre diversos temas, trayendo al centro a **más de 100 agentes del mundo del arte para impartir cursos, conferencias, seminarios y charlas**. Se han trabajado los campos de la sostenibilidad de la creación contemporánea en Euskadi, el imaginario de lo monstruoso, la cerámica contemporánea, la performance, el arte tecnológico y científico, el imaginario de lo obrero, la escritura desde las artes visuales, el debate feminista en el arte contemporáneo, el cine a partir del archivo doméstico, el grabado, el collage y el dibujo.

Entre sus actividades cabe destacar la materialización de 17 exposiciones; la proyección de más de 330 piezas audiovisuales (largometrajes y cortometrajes) divididas en 14 ciclos temáticos y cinco festivales de cine; 36 conferencias y charlas sobre temas como el cine, la ilustración, la fotografía, el grabado, o el packaging; 37 programas de actividades (26 talleres, ocho seminarios y tres cursos) sobre cine documental, ilustración, grabado, fotograbado, fotografía, escultura, creación digital y conservación de arte; y cinco conciertos, un espectáculo de ópera, una performance colectiva con streaming y un show de *live cinema*.

MEDIDAS HIGIENICO-SANITARIAS Y DE SEGURIDAD

Desde BilbaoArte han recordado que se seguirán los mismos protocolos sanitarios habituales durante estas Jornadas de Puertas Abiertas: uso de geles en todos los espacios comunes; uso obligatorio de mascarillas en todos los recintos cerrados; control con recogida de datos para la identificación de las personas asistentes a los actos públicos y con aforos restringidos; control del mantenimiento de las distancias de seguridad; aforos normalizados a las últimas instrucciones; ventilación de los espacios después de un uso continuado; y en actos de mayor afluencia: toma de temperaturas.

PRENTSA OHARRA

JUAN MARI ABURTO ALKATEAK BILBOARTE ERAKUSKETA INAUGURATU DU, AURTEN BEKA-EGONALDI BAT EGIN DUTEN ARTISTEN LANEZ OSATUA

- **Bilboko Udalaren arte-produkziorako zentroak urtero egiten den erakusketa kolektibo honen bidez amaituko du 2021. urtea, 26 artistaren eta arte-kolektibo baten lanekin.**
- **Arte plastikoen alorreko profesionalen epaimahai batek zazpi proposamen hautatuko ditu, 2020an bakarkako erakusketa bat egin dezaten.**

(Bilbo, 2021eko abenduaren 9a).- **Juan Mari Aburto** Bilboko alkatea **BilbaoArte Fundazioaren urteroko erakusketa** ikusten izan da, **non aurten beka jaso duten artisten obra biltzen baita**; datorren astelehenean (abenduaren 13an) hasi eta 17ra arte egongo da irekita herritarrendako.

Inaugurazio ekitaldi honetan, Juan Mari Aburtok lan bakoitzaren lan-prozesua ezagutu ahal izan du, egileek eurek azalduta; zorionak eman dizkie artistei, eta jakitera eman die Udalak konpromisoa duela BilbaoArte produkziorako zentroak eskaintzen duen ereduari eusteko eta hura sendotzeko. *"Bera da arte-sorkuntzako gune batek izan behar duen erreferentzia eta eredu: irekia, askotarikoa, zeharkakoa eta etengabe hazten ari dena. Erreferentziazko eta topaketako gune berezi bat. Ez dago Estatuko lurralde osoan beste zentro bat Bilbao Artek eskaintzen dituen goi-mailako zerbitzuak eskaintzen dituenik"*, adierazi du.

Udalaren arte-produkziorako zentzoko aretoetan, aurten, **27 proposamen izango dira erakusgai jarrita, adin bateko eta besteko 28 artista garaikiderenak, bertako nahiz Estatuko artistenak eta nazioarteko artistenak** (Mexiko, Kolonbia edo Brasil). Lanen artean ikusi ahalko dira **arte garaikidearen azken joeren eta lanerako modu eta prozesuen erakusgarri diren aleak**. *"Era bateko eta besteko arte-praktiken bidez jartzen da agerian proposamenen kalitatea, eta, proposamen horietan, Fundazioaren eta haren profesionalen bitarteko teknikoak funtsezkoak gertatzen dira asmo handiko erakusketa hau gauzatzeko"*, adierazi dute BilbaoArteko arduradunek.

ARTISTEKIN ELKARTZEA

Hona zeintzuk diren erakusketa kolektibo honetan parte hartzen duten 26 artistak eta arte-kolektiboa: Urtzi Canto, Liben Svaart, Cristina Zafra, Malu Hatoum, Miquel Ponce,

Julia Martos, Mikel Escobales, Roberto Coromina, Begoña Zubero, Miguel Alejos, Fernando Cremades, Amaya Suberviola, Rocío Agudo, Gari Arambarri, Carlos Ramírez-Pantanella, Miguel Ángel Madrigal, Natalia Suárez Ortiz De Zárate, Bernarda Beñat Garmendia eta Maialen Gallastegi, Jon Ander Terroba, Ibon Landa, Helí García, Gin Ro, Sara Padilla, Leire Lacunza, Santiago Ortiz, Guillermo Velasco eta Elvira Amor.

Erakusketaz gain, **abenduaren 14a eta 15a** osoki emango zaizkio artistak eta haien proiektuak ezagutzeari, eta proposamen bakoitza zeharo aurkeztuko da. Topaketa hauek **Fernando Castro Flórez** arte kritikariak koordinatuko ditu, eta goiz eta arratsalde izango dira, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Martitzenean, abenduaren 14an, **mintzaldi bat** izango da Fernando Castrok emana.

Barikuan, hilak 17, jardunaldietako atzenengo egunean, Ana Laura Aláez (artista), Mafalda Rodríguez (Reina Sofía museoa) eta Nekane Aramburu (artearen historialaria, kultur kudeatzailea, museologoa eta jagolea) guneetan zehar ibiliko dira eta **2022an zehar banakako erakusketak egiteko zazpi proposamenak hautatuko dituzte**.

Haien erabaki jendaurrean emango da ezagutzera arratsalde horretan bertan, artisten aurrean

SEKTOREARI LAGUNTZEA

Ekitaldi honetan zehar, hainbat ekimen jarri dira abian geroan ere sektoreari laguntzeko. BilbaoArteren bidez, Udalak **BAGII** deialdia jarri zuen abian. **Bilbao Arte Gela Irekiak 10 jarduera-programa burutu zituen, txit konpliak.**

Joan deneko sei hilabete honetan, BilbaoArte izan da hainbat gairen gaineko programen ardatza, eta erdigunera ekarri ditu **artearen munduko 100 eragile baino gehiago, ikastaroak ematera, hitzaldiak egitera, mintegiak eta mintzaldiak eskaintzera**. Euskadin sorkuntza garaikidearen jasangarritasunaren eremuak landu dira, orobat, munstrokeriaren iruditeria, zeramika garaikidea, performancea, teknologiazko eta zientziazko artea, langile munduaren iruditeria, ikusizko artearen bidezko idazkuntza, eztabaida feminista arte garaikidean, zinema bertako artxibotik abiatuta, grabatua, collagea, marrazkia.

BilbaoArteren jardueren artean, nabarmentzekoak dira 17 erakusketa: 330 lan ikus-entzunezko baino gehiago proiektatu izana (film luzeak eta film laburrak), 14 gai-ziklotan eta bost zinema jaialditan banatuta; 36 hitzaldi eta mintzaldi zinemaz, marrazkigintzaz, argazkigintzaz, grabatuaz edo packaging-az; 37 jarduera programa (26 tailer, zortzi mintegi eta hiru ikastaro), zinema dokumentalaz, marrazkigintzaz, grabatuaz, fotograbatuaz, argazkigintzaz, eskulturaz, sorkuntza digitalaz eta artearen kontserbazioaz; eta bost kontzertu, opera ikuskizun bat eta performance kolektibo bat streaming-arekin eta *live cinemako* ikuskizun bat.

HIGIENE ETA OSASUN NEURRIAK ETA SEGURTASUN NEURRIAK

BilbaoArtek gogorarazi du Ate Irekien Jardunaldietan ohikoak diren osasun protokoloak ezarriko direla: gelak erabiltzea guztientzako gune guztietan; maskara nahitaez jantzi beharra barruti itxi guztietan; gehienezko jende kopuru mugatua duten ekitaldi publikoetara joaten diren pertsonak identifikatzeko datuak biltzea; segurtasun tarteak zaintzea; azken jarraibideek ezarritako gehienezko jende kopuruak betearaztea; guneak aireberritzea era jarraituan erabili ostean; eta jenderik gehien pilatzen den ekitaldietan, tenperaturak hartzea.